



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %1,6 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan


BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA

3. HIRUHILEKOA

%1,6



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan urte arteko tasan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak azken agertoki makroekonomikoan zenbatetsitakoa baino bi hamarren gutxiago. Datu horrek aurreko hiruhilekoekiko beste tonu galera erakusten du, eta duela urtebete erregistratutako %2,5etik urruntzen da. Euskal Estatistika Institutuaren arabera, berriz ere zerbitzuen sektorea izan zen jarduera ekonomikoaren bultzatzaile nagusia, industria sektorearen dinamismorik eza konpentsatu bai-

tzuen, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batuen geldialdiak gero eta eragin handiagoa izan baitzuen sektore horretan. Izan ere, urtarriletik abuztura bitartean izandako atzerrirako esportazioek %4,7 egin zuten behera, nagusiki automobilgintzaren sektoreak behera egin zuelako, %16 inguru, alegia.

Hiruhilekoen arteko tasetan irakurketa positibagoa izan zen, EAEko ekonomiak erresilientziaren eta egonkortasunaren irudia erakutsi baitzuen, azken urtebetean oso iraunkor mantendu baita.


BARNE PRODUKTU GORDINA Hiruhileko

arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO BPGA

3. HIRUHILEKOA


%0,4



ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA
3. HIRUHILEKOA
%1,6



Lan merkatuari dagokionez, kontu ekonomiko-en arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta, %1,6 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Hala, azken urtean ia 11.000 lanpostu berri sortu dira, eta guztira 989.000 enplegu inguru daude, 2008tik izandako erregistrorik onena.


Era berean, BJA inkestaren arabera, langabezia tasa %7,1era jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan, eta horrek agerian uzten du lan merkatua une gozoan dagoela.

Azkenik, hiruhileko arteko tasan, Euskadiko enplegua %0,3 hazi zen, aurreko erregistroa baino gutxiago, baina aurreikusitakoa (%0,2) baino hamarren bat gehiago.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA
3. HIRUHILEKOA
%0,3



Iturria: Eustat.